

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# MAILOPE

269

2019ko maiatza

TOKIKOM

**ASKE ALA EZKUTUAN?**  
NOLA BIZI DUZU ZUK HILEKOA?



## LARRAUNEN ALDEKO KONPROMISOA

Gure ibarrean bizitzeaz harro gaude; ingurune paregabea dugu, nortasun propioa... Bizipoza ematen duguten hainbat abantaila. Hala ere, Larraungo zenbait joraren inguruan kezkatuta gauden herritar talde bezala, azken lau urteetan zehar ibarreko eragileekin eta herritarrekin elkarlanean aritu gara ikusten ditugun gabezia horiei aurre egiteko.

Arazo nagusi gisa, bi identifikatzen ditugu:

Batetik, gure herrietan bizitzen geratzeko zailtasunak (etxebizitza, lanbide, zerbitzu eta beste hainbat arlotako traba posibleren ondorioz) eta horien ondorioz herrien despopulazio;

Eta bestetik, komunitateko giro sozialaren sakabaketa. Hau da, ekimen dezente antolatzen da (eskolak, eragile sozialek, instituzioek...) baina guztien arteko koordinazio eta elkarlanerako ohitura falta sumatzen dugu. Horrek, larraundar nortasuna ez indartzea dakar, eta hortaz, bertan bizitzen geratzeko motibazio falta.

Orain haraneko bi Udalak eta 15 Kontzejuak berriro tokatzen da eta arazo hauei aurreko egiteko neurriak jarri behar direla pentsatzen dugu, hitzetatik ekintzetara pasatzeko.

Norabide horretan, bi Udalen inplikazioa ezinbesteko ikusten dugu. Horregatik, datozen 4 urteetan Larraun zein Lekunberri udalerrien kudeaketan aritzeko hauteskundeetara aurkezten diren taldeei ondoko konpromisoak hartu eta horiek programetan jaso ditzaitezen dei egiten diegu:

**1. Lehenbailehen, epe ertain-luzerako ikuspegiarekin, haranaren etorkizuna "marratzu" eta norabide horretan, modu antolatu batean ekimenak sustatzeko konpromisoa** hartzea; bertako herritarren beharrak identifikatu eta horiek asebetetzera begira: antolakuntza, azpiegiturak, zerbitzuak, ekonomia...

Bide horretan, garrantzitsu ikusten dugu ibar osoko ikuspegia kontuan hartuko duen garapen plana martxan jartzeko konpromisoa.

**2. Herritarren arteko elkarlan eta parte-hartzea bultzatzeko konpromisoa;** proposatzen diren ekintza ezberdinetan, bertako eragile sozial, kultural eta ekonomikoen zein, oro har, herritar ororen inplikazioa eta elkarlana sustatzea, bai jada martxan dauden horietan zein hemendik aurrera sortu daitezkeen berrietan.

Berriki aipaturikoak, Larraun ibarraren etorkizun oparo baten bidean gutxieneko konpromisoak direla uste dugu, Larraungo herritarren babes zabala dutenak. Ñabardurak ñabardura, nork bere ikuspegitik, hauteskundeetara aurkezten diren taldeek, jasotzea espero dugu. Guk zintzoki horren alde egiten jarraituko dugu.

Larraun Bizi Ekimena

## ABAIGAR UDALEKUAK BIZIRIK!

Badira 40 urte Abaigarren, Nafarroako herrixka txiki batean, euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen duten udalekuak antolatzen gabiltzala. Euskal Herriko txoko desberdinetatik elkartutako gazte boluntario ugari hartzen dugu parte, bertako haur guztiei zuzendua dagoen proiektua aurrera ateratzeko lanean. Elkarlanean, gozatuz eta beti ere euskara oinarritzat hartuz, hainbat balore lantzen ditugu txandetan, 15 egun ahaztezinetan.

Azken hiru urteetan etxearen erabilera mugatua egon da, berritze lan potolo batean murgilduta aurkitu gara, eta ondorioz, ezinezkoa izan zaigu bertan udalekuak antolatzeko. Zorionez, eraberritze prozesua ondo bidean doa eta egindako esfortzu handiaren ostean etxea badoa berriro forma hartzen, ereindako haziak badoaz loritzen. Aurtengo udan, uztail eta abuztu bitartean, 240 gazte baino gehiago bertan elkartu eta berriro etxera bueltatu ahal izatea horren guztiaren emaitza izanen delarik.

Proiektu izugarri honek, ordea, 250.000 eurotik gorako kostu ekonomiko handia ekarri digu. Mailegu bat eskatu dugun arren, eta esan bezala obra aurrera doan arren, txandak behar bezala hasteko, SUKALDE eta LITERA BERRIAK erostea ezinbestekoa zaigu, eta horretarako, gudan sinisten duen jendearen laguntza behar dugu. Zure ekarpenik txikiena ere asko da guretzat!

Finantzaketa kolektiboaren kanpaina jarri dugu abian aipatutako helburuak lortzeko. Ekarpeneko ekonomikoak egiteko epea apirilaren 15ean hasi eta maiatzaren 23an amaituko da. Norbanako, elkarte nahiz kolektibo orok jarri dezake bere aletxoak. Bakoi-tzak nahi adina diru jarri dezakeen arren, orientagarriak izan daitezkeen zifra batzuk jarri ditugu: 15 euro, 30 euro, 60 euro, 120 euro eta 300 euro. Dena dela, edozein ekarpen ongi-etorria izango da, Abaigar berriro ere martxan jartzen lagunduko baitu. Horretarako, Itsulapikoa, Euskal Herriko Finantzaketa Kolektiboaren plataforma erabiliko dugu ([www.itsulapikoa.eus/eu/proiektuak/abaigarko-udalekue-tako-etxea-obretan](http://www.itsulapikoa.eus/eu/proiektuak/abaigarko-udalekue-tako-etxea-obretan)). Askok gara Abaigarren eta Euskal Udalekuetan egondakoak, eta badakigu beharrezkoa dugun bultzada ekonomikoa lortu dezakegula.

21. Korrika amaitu berri dela kontuan izanda, eta udazken sasoiaren Euskaraldiak izandako arrakastaren ondoren, euskararentzat betidanik arnasmune izan den etxeak beste behin ateak ireki ditzan nahi dugu. Zuen laguntza behar dugu gure mezua Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzeko, eta uda sasoiaren udalekuak martxan jartzeko.

Abaigarko Udalekuak

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)-era hilaren 20a baino lehen.



4



16



22

04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Maddi Urrea.

06 ELKARRIZKETA: Udal hauteskundeak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Hilekoa.

22 KULTURA

26 KIROLA

27 KUXKUXEAN: Martxoko zorion agurrak.

28 PLAZATIK PLAZARA

30 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Ane Irazu, Larraungo Udala, Lekunberriko Udala, Araizko Udala, Beteluko Udala eta AEK euskaltegia.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua  de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

# IBARBERRI



## Eskolako logotipo eta web-orri berria

Ibarberri Eskolako Komunikazio Batzordeak ikasturte osoa darama, beste egitekoen artean ikastetxeko logoa eta web-orria berritzeko lanetan. Izan ere, eskolako proiektu berriak direla eta gure identitate berriaren erakusle izango den logo eta web-orri berri baten beharra geneukan. Komunikazio batzordearen helburua da, eskola herrira/herrietara zabaltzea eta lanean jarraituko dute horretan.



### Kolore tantak

Azken egun hauetan Ibarberri eskolako logoa, "Kolore tantak" izeneko, berritzen ibili gara. Gure zuhaitza "loratu" nahi izan dugu guztion parte-hartzea sustatuz. Horretarako ikasle, irakasle, eskolako langile eta familiak gure hatz markak jarri ditugu bertan. Eta hona hemen gure betiko zuhaitz berrituaren emaitza.

Era berean, web-orrialdea ere berritu dugu. [www.ibarberrieskola.com](http://www.ibarberrieskola.com) helbidean aurkituko dituzue gure eskolako berriak, proiektuak, argazkiak....

5. maila A taldeko ikasleak.

eskolatik  
mailopera



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARRI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)



**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)



## AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Lekunberriko Udalak martxan jarritako Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesua bertan behera gelditu da. Sortutako arazoen ondorioz, beharrezkoa ikusi du araudia berrikustea. Datoren legegintzaldi berriarekin batera, berriro ere martxan jartzea espero da.



## LEKUNBERRIKO UDALETXEKO ISOLATZE-LANAK

Lekunberriko udaletxean isolatze-lanak egiten ari dira. Eraikinaren bi saihetsetan kanpoaldekotik nahiz barrualdetik paretak isolatzen ari dira eta erdiko eraikinean berriz barrualdetik. Horrez gain, leiho berriak ere jarri dira. Efizientzia energetikoa zainduz hartutako neurriak dira denak.



## ABESBATZAREN KONTZERTU ARRAKASTATSUA

Urteroko kontzertua eskaini zuen Jesus Jaime-rena Abesbatzak Ostiral Santuan Lekunberriko parrokiaren eta ohi bezala goraino bete zen eliza. Sarrera berezia egin zuten gainera, ikus-entzule guztiak barruan entzuteko prest zirela abesbatzako kideak kantari sartu baitziren.

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Maddi Urra (Irurtzun)

**Udaberrian sartu  
gara orain gutxi  
beroki ala tirante  
zein jarri, zein utzi?  
Nola aurre egin eguzki,  
elur, aire putzi?  
Goizean goiz esnatu  
ta burua hautsi!**

Zazpitan jaiki eta  
badago **ikusia**  
ordua aldatzetik,  
hasten da **argia**  
mila esker Franco ba,  
badago **aldia**  
bizitzeko ordea  
behar da **aisia**.

Doinua: Dama gazte xarmant bat.

**Hurrengoarentzako puntua:**  
Garestik Gasteizera eskutik eskura

**Oinak:**  
Korrika, irrika, klika, herrika.





# Udal taldeen txanda da eta orain zurea da erabakia

**Kongresurako eta Senaturako ordezkariak erabakita gelditu ziren joan den hileko hauteskunde orokorretan eta orain datozen lau urteetan gertuko eneko politikaz arduratuko diren ordezkariak aukeratzeko txanda da. Maiatzaren 26an, igandea, foru eta udal hauteskundeak izanen dira Nafarroan eta dagoeneko baditugu gure eskualdeko udaletako hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaien zerrendak. Eta eurek euren ahotik jaso ditugu proposatzen dituzten lan-ildo nagusiak.**

## ARBIDE TALDEA (BETELU)

Orain arte bezala, Udalak herritarrei irekia izan nahi du, ekarpenak eta ideiak herritarrengatik hartzeko eta aztertzeko prest. Jarraian zenbait ildo aipatzen ditugu, baina ez da zerrenda itxia. Kontuan izan behar dugu, egungo egoera aldakorra dela eta prest egon behar dugula hartara egokitzeko. Lau urte denbora luzea da.

- Inguruko herriekin harremanak bizkortu egingo dira datorren urteotan. Izan ere, Tokiko Mapa dela eta, toki administrazioaren berrantolaketak gertatuko da. Bestalde, Aritz eta Larraungo udalekin harreman onak mantendu beharko ditugu, hainbat zerbitzu batera eskaintzen ditugulako.
- Ingurugiroak ere protagonismoa izango du. Ondasun naturala zaintzen jarraitzeaz gain, klima aldaketak gero eta ardura gehiago eskatu behar du. Gure kasuan, uholde arriskuei aurre egitea bada helburu bat. Aurten bertan honi lotuta, San Pedro kalea berritzearekin batera, Zezko erreka herri azpitik daraman hodia berrituko da lehenengo fase batean eta bere kapazitatea nabarmen handituko da uholdeak saihesteko gaitasuna handituz. Ingurugiroarekin lotuta ere,

efizientzia energetikoa eta hondakinen kudeaketan ere lanean jarraituko dugu.

- Herri arteko garraio publikoari buruz, orain arte bezala maiztasun gehiagoko autobus zerbitzua eskatzen jarraituko dugu.

- Eraikuntza publikoari dagokionez, azkenaldian hartutako erritmoarekin jarraituko da.

- Etxebizitzaren eskaintza bultzatzea izango da beste eginkizun bat, bai modu pribatuan sortu daitezkeen ekimenak eta modu publikoan planteatu daitezkeen aukerak aztertuta. Adibidez, Ostaturako 3. solairuan teitatu berria egin ondoren apartamentuak egiteko aukera dagoela ikusi da.

- Euskarari, orain arte bezala, euskaltegi eta euskarazko komunikabideei gure babesa eskaini eta nahikotasun ekonomikoa bermatzearen aldeko apustua egin. Honez gain euskara administrazioan bultzatuko dugu

- Jarduera ekonomikoa eta kulturala, eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea mantentzea eta Hirigintza Plana onartzea ere izango dira datorren legegintzaldiko ardatz nagusietako batzuk.



### Hautagaiak:

(Argazkian ezkerretik eskuinera eta goitik behera)

Ainhoa Oartzabal Azketa • Teodoro Otamendi Artola • Jolanda Areitio Oiarbide (ordezkoa) • Mikel Rekalde Goldaraz • Asier Elizalde Zubilaga • Ander Arraztio Saralegi (ordezkoa) • Igor Otermin Egia • Ander Prados Otamendi • Kontxi Arraztio Saralegi.

## EH BILDU (ARAITZ)

Gure haraneko herritarrak lehentasunean jarriz, bertako ondareak eta baliabideak kontuan hartuz, oraina eta etorkizuna egiten ari gara.

Araitzen oinarri izan behar dute pertsonak, baserriek eta naturak, euskarak eta kultur ondareek, berdintasunak. Bultza ditzagun beraz denon artean!

Guztion parte hartzeari balioa ematen diogu, eguneroko beharrak ikusi eta asetze bidean oso lagungarri dira eta.

Badira helburutzat jarriak ditugun

gaiak, herritarren egunerokoa erosoago egin nahian: orain arteko gaiez gain, adineko biztanleei laguntzak eskaintzea, Araitz eta inguruko ibarren arteko garraio publikoa bultzatzea, gazte eta haurrentzako aisialdi eta kirol aukera berriak sustatzea, etorkinak gurean "integratzea",...

Udaletxeko orain arteko taldea indarberritua dator, Araitzen izana oinarri hartuz eta gaurko aukerak baliatuz eraikiko dugu gure haranaren etorkizuna denon artean eta denontzat!

### GURE NORTASUNA ZAINDU!

- Gure hizkuntza, kultura eta ohiturak mantendu eta zabaldu.
- Benetako bakearen alde lan egin.
- Euskal Preso guztien etxeratzea lagundu.
- Gure ondare arkitektonikoa babestu: etxeak, errotak, zubiak...
- Belar kablea: arbasoen ohiturak omendu.
- Liburulagun, liburutegiaren erabilpena sustatu.

### BERDINTASUNEAN BIZI!

- Gizonen eta emakumeen arteko parekidetasuna bultzatu.
- Helduen eguneroko beharrak identifikatu eta lagundu.
  - Gazteriaren beharrak entzun eta lanerako motibatu.
  - Etorkinen harreran eta elkarbizitzan lagundu.
  - Umeen zaintza eta kontziliazio fami-

liarra erraztu.

- Ibarreko "Tximutxe" talde feminista babestu.

### LURRETIK ETA LURRARENTZAT!

- Baserritik bizi ahal izatea bultzatu.
- Herrietan bizitzea erraztu.
- Ingurumenaren aberastasuna zaindu.
- Energia berriztagarriak eta bioerakuntza sustatu.
- Ekonomia zirkularra.
- Turismo jasangarria bultzatu.

### MUGIKORTASUNA ERRAZTU!

Garraio publikoa sustatu.

- Autoa partekatu: araitzgaraz@gmail.com
- Garraioaren kutsadura murrizteko neurriak landu.
- Bizikletaren erabilera bultzatu.
- Haraneko herrien arteko harremana sendotu.
- Herrien arteko bideak mantendu.

### Hautagaiak:

(Argazkian ezkerretik eskuinera)  
 Nerea Martiarena Vallejo • Maider Agirrebarrena Beldarrain • Koldo Nuñez Betelu • Jose Manuel Zubillaga Mugerza • Urko Gorostidi Mujica • Iraia Urreaga Otegi • Koldo Garaikoetxea Lopetegi



## EH BILDU (LEKUNBERRI)



Legealdi honetan Lekunberriko Taldean egon diren barne liskarrek eragin zuzena izan dute udal jardueran, eta erabat moteldu dute dinamika. Gorabehera horiek gutxi ez, eta aurreko legealdietatik etorri diren arazok nabarmen baldintzatu dute egoera: gazte zentroko azken epaia dela eta, 500.000 € itzuli behar izan zaizkio Nafarroako Gobernuari; urteetan eragindako zorraren eraginez, egoera ekonomiko kaskarra izan du Udalak; kuartelaren eraikina Udalarena da eta Guardia Zibilak doan erabiltzen du; Ertzila ur partzuergoan egindako kudeaketa txarrak ere arazo asko sortu du (urte luzez ez da konturik aurkeztu, ur plantaren kontratazioa ez da behar bezala egin)... EH Bilduren lana, ordea, kritika egitetik haratago, arloz arlo proposamenak egitea izan da: lan poltsa bat sortzea proposatu dugu, herri mantenua hobetzeko neurriak aurkeztu ditugu, Leitzako eskola garraioa konpontzeko ekimenak eta harremanak landu ditugu, trafikoa eta mugikortasuna hobetzeko neurri sorta bat bultzatu dugu. Orain aurrera begira jarri nahi dugu, eta honela irudikatzen dugu Udala: eragile aktiboa izan dadila eta kontuan har ditzala haurren, gazteen, langileen, etorkinen, adinekoen, emakumeen... beharrak eta herrian eta ibarrean arloz arlo lanean ari diren eragileen beharrak (hezkuntza, kirola, kultura, ekologia, berdintasuna...). Hauek izango dira gure lehentasunak: herrian mantentze-lanak ho-

betzea eta zaintzea (kaleak, parkeak, kiroldegia...); trafiko eta mugikortasun arazoei erantzutea (autoen erabilera arrazionalizatu, oinezkoei gune seguruak eskaini...); aktibitate ekonomikoa sortzeko baldintzak lantzea (industrialdean, merkataritzan, turismoan, ekonomia berdean...), etxebizitza programa berri bat bultzatzea gazteentzat eta beharra dutenentzat (babes ofiziala eta alokairua sustatuz, kooperatibak sortuz...), herri sektore guztiei (familiak, haurrak, gazteak, helduak...) erantzungo dien aisialdi eta kultur programa bat lantzea haiekin eta haientzat; herritarrei informazio bideak irekitzea (aldizkariak, ekitaldien agendak, batzar irekiak, herri galdeketak, lan taldeak, aholkularitza zerbitzuak); egon daitezkeen pribilegio egoerekin bukatzea, lekunberriar guztiak berdinak garelako eskubide eta betebeharreran. Gai horiek eta beste asko dauzkagu gure lan agendan; eredu presidentzialistak gainditu eta aurrera begira jartzeko garaia da, denon herria eraiki dezagun.

### Hautagaiak:

1. Arkaitz Goikotxea Arriola
2. Miren Goikotxea Arregi
3. Mikel Betelu Gorostegi
4. Aitziber Eleta Lopez
5. Karlos Balda Calahorra
6. Maialen Ruiz Lodoso
7. Igor Mitxaus Nieto
8. Ane Galdos Maiztegi
9. Juan Mari Irastorza Garaño



## LEKUNBERRIKO TALDEA

Lekunberriko Taldeak, betidanik ezaguna duguna, jende ugari biltzen du, aniztasuna izan baitu beti oinarri. Herri anitza garen aldetik, pertsona anitzak behar ditugu udaletxean eta guk apustu garrantzitsua egingo dugu bide horretatik.

Eguneratuta egon eta erronka berriei aurre egiteko, balizko emakume eta gizon ezberdinak elkartu gara Lekunberriko Taldearen inguruan, Lekunberri hobe batean sinisten dugulako, identitate sentimendua egunerokotasunera ekarriz.

Gure oinarriak honakoak dira: bizilagunekiko entzuketa aktiboa, antolakuntza eta ekonomia kudeaketa ona eta gardena, parte-hartze ireki eta erakargarria, elkarrizketa anitza, hurbiltasuna, baloreak (errespetua, berdintasuna, konpromisoa, lan taldea...), komunikazio aktiboa eta herri sentimenduaren sorrera.

Gure herriak duen ahalmenean sinesten dugu eta, horregatik, gaur egungo Lekunberri bizitzeko eta bisitatzeko leku paregabeago bat bihurtzea daukagu helburu. Horretarako, proposamenez beteriko programa zabala eta anitza prestatu dugu, ideia ezberdinez betetakoa.

Hemen adibide batzuk:

- Udaletxearen antolakuntza eta kudeaketaren hobekuntza.
- Industrialdeari indarra eman eta puntu estrategiko bat bihurtzea.
- Epe erdi eta luzerako mugikortasun planaren diseinua, modu parte-hartzailean erabakiz.
- Oinarrizko azpiegituren mantentzea sustatzeko plana.
- Udaletxe irekia: Herri parte-hartzerako ordenantzaren berrikusketa eta aplikazio baten sorrera parte-hartzea sustatzeko.
- Turismoari bultzada ematea, gure ondare historikoaren eta lekuko produktu eta zerbitzuen promozioarekin batera.
- Herri sarreran kokatutako etxebizitzaren eraberritzea etxebizitza sozialak eginez.
- Kirol modalitate guztien promozioa eta elkarbizitzaren sustapena.
- Kultur arloarekiko apustu garbia eta ekintza berriak: Gastrokultur.
- Gazte aretoa bukatu.
- Etxe soziokulturala eraikitzeko aukerak aztertu.

Lekunberri, aurrera doan herri. Lekunberri bizirik.



### Hautagaiak:

1. Gorka Azpiroz Razkin
2. Joseba Ordoki Ochoa
3. Uxua Huici Rayo
4. Vicente Michaus Gallardo
5. Mª Jesus Ayestarán Oquiñena
6. Mikel Irujo Albiasu
7. Tere Ayerdi Fernández de Barrena
8. Iñigo García Cuellar
9. Mónica García Martínez

### Ordezkoak:

1. Javi López Ruiz
2. Ana Prados Heras
3. Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

## LARRAUNDARRAK

Amaitzean den legegintzaldi honetan egindako lana sendotu eta hobetzeko asmoz aurkezten gara hauteskunde hauetara. Larraungo bizilagun guztiek egiazta dezakete alor ezberdinetan burututako lana. Besteak beste, Osasun Etxean egindako hobekuntza eta zabaltze lanak eta bertan ezarritako zerbitzu berriak, fisioterapia eta errehabilitaziokoa hain zuzen ere; bestetik, Gabari Etxearen egokitze lanak ere egin dira Udaltxearen egoitza berria bihurtuz, baita beste hainbat zerbitzuren ere: Nekazaritza Ganbera, Iratxe Kontsumitzailer Elkarte, Gizarte Zerbitzuak, Euskara Zerbitzua etab.

Nafarroako Gobernuarekin adostutako hitzarmenaren bitartez, Gabari eraikinaren erabileraren gure aldeko lagapena zehazten zen. Baina hitzarmen honen epea bete egin da, aurten iraungitzen baitzen. Eta horrek eraikina bera ez ezik, inguruko lursailen (7.000 m<sup>2</sup>) jabetza ere geureganatzea ahalbidetu digu.

Legegintzaldi honetan Larraunen 1.100.000 euroko inbertsioa egin da eta Kontzejuei obrak egiteko diru-laguntzak eman dira 150.000 euro bideratuz. Hau guztia, zergak igo gabe eta zorpetu gabe egitea lortu da.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren aldetik, elurra kentzeko xafla bat eta suhiltzaile kamioi bat ere lortu dugu, inolako kostu ekonomikorik

gabe, gure zerbitzua eskaintzeko.

Hurrengo legegintzaldirako hauek dira gure lehentasunak:

Kontzejuei babes ematen jarraitzea euren eskumenei aurre egin ahal diezaioaten.

Kontzejuen mantentze-lanetarako pertsona bat kontratatzea.

Gure arazo handienetako bat despopulazioa izanik, Larraunen hutsik dauden etxeen eraberritzea sustatzea. Udaletxe zaharraren salmentatik eskuratutako horretan inbertituko da eta Nafarroako Gobernuari ere prezioa egingo zaio diru-laguntza gehiago eman ditzan horretarako.

Larraun osoan banda zabaleko Internet zerbitzua ezartzea. Proiektuaren eta kostuen azterketa dagoeneko prest ditugu.

Lekunberriekin dugun hitzarmenaren berrikuntzari dagokionez, egungoak baino baldintza hobekak defendituko dira Larraunen alde.

Eskola garraioa babesten jarraitzea, Iruñera nahiz Leitzara joateko.

Ertzillako ur-araztegiaren mantentzeak dakarren duen karga zuzen banatzea, bertatik hornitzen diren guztien atean, Lekunberriko Industrialdea barne.

Gaur egun, Larraunek ez du taxi plazarik, eta beharrezkoa ikusten dugu horri konponbidea ematea, batez ere adineko pertsonen zerbitzu hobe eskaintzeko.

### Hautagaiak:

1. Jose Javier Barberena Echarri
2. Raquel Molto Sarasa
3. Ana Belen Arraras Zabaleta
4. Jose Manuel Iriarte Azpiroz
5. Jose Martin Martincorena Baraibar
6. Luis Maria Goldaracena Goicoechea
7. Pedro Manuel Barberia Echarri

### Ordezkoak:

1. Martin Jose Bildarraz Vergara
2. Maria Consuelo Aizpurua Artola
3. Juan Berasain Michaus



**Lagunasesoria S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**OKM**

**ABOKATUAK**

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## LARRAUNGO EH BILDU

Duela lau urte 100 neurri baino gehiagoko programa aurkeztu genuen eta oposizioan egonik ere, horiek guztiak garatzen saiatu gara gure udal jardunean. Proposamen horietako batzuk atzera bota dituzte Larraundarrak eta Larraungo Elkarteak. Beste batzuk aldiz, onartu arren, Udal Gobernuak ez du gaitasunik izan aurrera eramateko, ezerezean geldituz. Joera batek kezkatzen gaitu bereziki: biztanleriaren beherakada nabarmenak. Horren adierazle 2015ean 1.002 biztanle ginen Larraungo udalerrian, eta gaur egun 967 gara. Udal Gobernuak ez dio arazo honi heldu, 0 € bideratuz etxebizitza politikerara 4 urte hauetan.

Aurrera begira, EH Bilduk honela irudikatu nahi du Larraungo Udala eta bere jardura: eragile aktiboa, bertako biztanleok duintasunez bizi ahal izateko; eraginkorra, herritarron behar eta kezkei erantzuteko; irekia, parte hartzea bultzatuko duena.

Idea orokor horietan oinarrituta, gure lan-ildoak hauek izango dira: etxebizitza eskubidea bermatzea, oinarritzko zerbitzu publikoak guztion eskura jartzea, baserria eta lehen sektorea bultzatzea, gainerako sektore



ekonomikoak aktibatzea, euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzea, genero ikuspegia arlo guztietan txertatzea, etab. Haran atsegin eta osasuntsu bat behar dugu herritar guztiontzat eta erdigunean jarri behar ditugu haurrak, gazteak, adinekoak, emakumeak, langileak... Inork ez dezala Larraundik alde egin Udalak nahikoa baliabide jartzen ez duelako bertan bizi ahal izateko.

Horretarako, egiteko asko daukagu gure lan-agendan; besteak beste, etxebizitza plana osatu eta araudi urbanistikoa eguneratu, mugikortasun plan integral bat abian jarri, Kontzejuen batzordea osatu, Ertzi-

Ilako Kontzejuekin elkarlana gauzatu gatazka konpontzeko...

Gai horiek eta beste asko daukagu esku artean. EH Bildu martxan dago Larraun biziberritzeko sozialki, kulturalki eta ekonomikoki.

### Hautagaiak:

1. Mikel Uharte Martija
2. Lorea Lasarte Elizalde
3. Josu Oreja Arratibel
4. Xabier Azpiroz Beunza
5. Ainhoa Permach Martin
6. Juani Zabaleta Arangoa
7. Irune Juanena Ayestaran

## LARRAUNGO TALDEA

*Guk Larraun maite degu,  
bere ohiturak eta biztanleriarekin.  
Larraun ez da gaur goizekoa,  
herri guztien larre toki oparoa da,  
Gure attona-amonek bezainbat istorio dituena.  
Lanbide askoren testigu zaharra:  
Artzaintza, abeltzaintza, zurgin eta arotzak.  
Eta habia egin berri edo nahi dutenentzat  
bizileku ederra, paregabea.  
Oraingo gazte ta asmo berrientzat leiho irekia,  
eman diezaiegun aukera.  
Eman dezaiegun ibarrari duen balorea.  
Zain ditzagun gure mendiak eta larreak.  
Jarri gaitezen elkarrekin lanean.  
Denon etorkizunari begira,  
lepoan hartu ta goazen aurrera!  
Emaiguzu aukera!!!  
Emaiguzu botoa..... Larraungo Taldea.*

**LARRAUNGO TALDEA** 2019 - 2023

**LARRAUN** egiteko beste modu bat

Otra forma de hacer **LARRAUN**

1. IÑAKI ETXEBERRIA
2. IDOIA OLASCOAGA
3. MIKEL LANDA
4. UNAI PEREZ
5. MARIA JESUS SAN SEBASTIAN
6. MARTIN JUANENA
7. FRANCISCO JAVIER LEGARRA



## LORE, LANDARE ETA ZUHAITZEN I. AZOKA ANTOLATU DUTE MAIATZAREN 19AN LEKUNBERRIN

Datorren maiatzaren 19an goizeko 10:00etatik 14:30era bitarte lore eta landare mota ezberdinak erosi eta horietaz gehiago jakiteko aukera izanen da Lekunberriko Plazan. Lore, Landare eta Zuhaitzen I. Azoka izanen da. Balkoiak apaindu eta lorategietan, baratzean nahiz bestelakoetan jartzeko aukera zabala egonen da. Horrez gain, landareekin harremana duten artisautza produktuak ere izanen dira. Euskal Herria osoko hamabost haztegi inguru etorriko dira. Helburua, bizi garen inguru naturalari garrantzia handiagoa ematea da.

## MAIATZAREN 21EAN IZANEN DA MIREN AGUR MEABEREN LITERATUR SOLASALDIA

Maiatzaren 14rako aurreikusita zegoen literatur solasaldia maiatzaren 21era aldatu dute. Arratsaldeko 18:00etan izanen da Larraungo AEK Euskaltegian. Miren Agur Beabe idazlea bera bertan izanen da eta berarekin batera, hiru libururi buruzko solasaldia egingen da: "Tximeletak", "Kresalaren taberna" eta "Titare bete zorion". Parte-hartzeko aurrez hiru liburuak irakurtzea komeni da. Irakurri eta gozatu!

## ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA SORTU DUTE LARRAUNEN

Erraldoi eta kilikien konpartsa sortu dute Lekunberri eta Larraungo zenbait herritarrek.

Larraungo zenbait pertsonaia ordezkatuko dituzten lau erraldoi eta sei kiliki izanen dituzte. Behin-behineko bozetoiei azken ukituak ematen dabilta. Aurrerapen gisa hortxe dituzue hautatutako bi pertsonaia. *Maioa* izeneko erraldoi honek naturaren eta emakumearen arteko harremana ordezkatzen du eta kilikia berriz, Plazaolako makinista bat da.

Helburua Larraungo herrietako jaietan bertako konpartsaaren emanaldiak eskaintzea da eta herritarrak batzeko baliagarri izan dadila. Dagoeneko talde bat osatu duten arren, parte hartu nahi duen jende gehiago behar dute, izan ere, erraldoi eta kilikiekin ibiltzeaz gainera, txistulariak eta gaita-jotzaileak ere beharko dituzte, baita herriz herri ibiliko direnerako Kontzejuetako ordezkariek ere. Beraz, animatuz gero jarri harremanetan 606 811 249 telefono zenbakian edo [comparsavalledelarraun@hotmail.com](mailto:comparsavalledelarraun@hotmail.com) e-postaren bitartez.





## MAIATZAREN 12AN DENOK SENPERERA!

Euskara Zerbitzuak Mitxausenea Kultur Elkar-  
tearekin batera autobusa antolatu du datorren  
maiatzaren 12an Senperen ospatuko den Herri  
Urrats jaialdira joateko. Goizeko 8:45etan Bete-  
luko Indianoetxetik irtengo da eta Lekunberriko  
pilotalekuan 9:00etan egingen du geldialdia. Eman  
izena (12 €) maiatzaren 9a baino lehen Euska-  
ra Zerbitzuan (948 504 400 / [larbeleareuskaraz@  
iparmank.eus](mailto:larbeleareuskaraz@iparmank.eus)), Mitxausenean (948 604 582) edota  
Araizko eta Beteluko udaletan.



## MALLOETAKO KABLEEN HISTORIARI ETA BERTAKO HEGAZTI HARRAPAKARIEI BURUZKO INFORMAZIO GUNE BERRIAK

Joan den hilean, Gaintzan Malloetako kableei eta  
hegazti harrapakariei buruzko jardunaldia egin zen.  
Bertan izan ziren besteak beste, Nafarroako Gober-  
nuko eta Araizko Udaleko ordezkariak. Nafarroako  
Ingurumen Kudeaketako teknikariak bertan egiten  
ari diren Ecogyp proiektuaren azken aurrerapenen  
berri eman zuten. Izan ere, ezin baino inguru na-  
tural egokiagoa eskaintzen baitizkiete Malloetako  
malkorrek saizuriei, putreei edo hain preziatuak di-  
ren ugatzei. Eta horien biziraupena ziurtatzeko eta  
euren bizi ohiturez gehiago jakiteko gertuko jarrai-  
pena egin ohi diete Ingurumen Departamentuko  
teknikariek. Gainera, azken urteotan herritarrek  
aizolanean Malloetatik belarra jaisteko iraganean  
erabiltzen ziren zenbait kable berreskuratzeko  
egindako lana ere ikusarazi zuten aurkezpenean.  
Hemendik aurrera, kableen historiari nahiz bertako  
hegaztiei buruzko informazioa eskainiko da Gaint-  
tzan, Azkaraten eta Araizko udaletxe aurrean jarri  
diren panel informatiboen bitartez.



## KANPOTARRAK IRABAZLE VI. BETELUKO FRONTENIS TXAPELKETAN

Joan den hilean jokatu zen VI. Beteluko Frontenis  
Txapelketa Beteluko kiroldegian. Euskal Herritik na-  
hiz kanpotik etorritako 24 bikotek parte hartu zuten.  
Burgoseko Jonny Serna eta Maeztu bizkaitarra, Be-  
teluko Unai Otermin eta Irurtzungo Asier Galarzaren  
kontra aritu ziren finalean. Eta azkenean, kanpokoek  
15 eta 8 irabazi zuten. Zorionak!





# Hizkuntzak, altxor misteriotsuak

Mexikon, gaur egun, gutxienez 62 hizkuntza diraute bizirik, batez ere hegoaldean, Chiapas eta Oaxaca estatuetan. Horietako batzuk dira Chol, Tzotzil eta Tzeltal, Maya hizkuntzatik 'jaioak'. Hizkuntza ikerlariek kalkulatu dutenez, 780.000 bat pertsonak erabiltzen dute edo badakite hiruetako bat. Lehenengoa, alde handiarekin, hiztun gutxien dituen da. Altxor hauek ez galtzeko, hizkuntza-eskola batzuetan hauek irakasteari ekin diote eta instituzioetatik nolabaiteko babes ematen. Baina, jendartean, oraindik ere, aurreiritzi asko dago eta bigarren mailako biztanleriaren hizkuntzat hartzen dituzte. Saihestezina da euskara burura ez ekartzea.

Korrika pasa da Euskal Herriko txoko eta bazter guztietatik, lekukoak eskuz-esku gure geografia zeharkatu du. Eta guk harro aldarrikatzen dugu gure hizkuntza, nahiz eta batzuk zapaltzen saiatzen diren.

Harrotasuna lotsaren aurrean. Txanpon beraren bi aldeak.

20 bat gaztetxok osatzen zuten klasea. "Nork hitz egiten du hizkuntza indigenaren bat?" galde-tu zuen irakasleak. Inork ez zuen eskua altxa, baina denek jarri zuten begirada hiru neskengan. Neskatoek begi guzti horiek saihestu nahian euren artean elkarbanatzen zituzten irribarre zalantzatiak. "Bai, Edma, Gisela, latzi zuek chol hizkuntza hitz egiten duzue, ezta?". Barretxoak ber-

rrez. Eta ni amorratuta. "Berak ere -niri begiratu-oso berezia



den beste hizkuntza batean egiten du berba". Orduan ikasle guztiak isildu ziren, irakasleak esandako azken hitzek benetan lortu zuten denen arreta.

Gaur, noizbait izan zirenari esker gara; nondik gatozen jakiteko gure sustraiak ezagutu behar dira. Hizkuntza batek egin gaitu, kultura batek. Adar garrantzitsu hau baztertzen dute askok, gutxietsi.

Hizkuntza batek errealitatea eta gizartea ulertzeko modu bat eskaintzen digu. Hizkuntza batek arlo batzuetara hurbiltzen gaitu, beste batekin ulertezin egiten zaizkigun gauzak gurera ekarriz. Euskarak, adibidez, hamaika erreferentzia egiten dizkio naturari. Eta nola konektatzen gaituen horrek ama lurrarekin! Berdin, chol, tzotzil eta tzeltal hizkuntzekin, besteak beste.

Niri ez zait okurritzen irakasleak egin zien galdera horri lotsaz erantzuten. Eskua altxako nuke ha-

rrotasunez. Ez nuke segundo batez ere zalantzan jarriko zeinen berezia den gure hizkuntza, Europako altxor zahar berezietako bat dela, gurea dela eta bizirik dagoela. Zapaldua izan dela eta oraindik ere alderdi politiko batzuek estatu espainolean hitz egiten diren hizkuntza gutxituekin bukatu nahi dutela. Zer basakeria da hori?

Zeinen berezi, ezberdin egiten gaituen. Eta zeinen aberats. Eta zeinen gu.

Argia izan zen nire mezua. Hiru neskek irribarre bat margotu zuten aurpegian. Begirada joko hori ez dut sekula ahaztuko. Isilunea egin zen, eta txalo mordo segidan.

Orduan bai, galderak hasi ziren. Eta hizkuntza elkar-banaketa. "Nola esaten da zera euskaraz? Eta chol hizkuntzan?", "Baduzue hitza ez dakit zer definitzeko? Eta zuek?"... Altxorrak.



*cuze*

●● Veronica Satrustegi



# Matriarkatua

Arribeko gasolineran egiten nuen lan uda hartan, unibertsitate garaia, 21 urte inguru izango nituen. AHT-ren aurkako kanpaldiko hippyak zetozen Arribeko plazan kanpalekua egitera. Kontzertuez gain, hitzaldiak ere antolatzen zituzten. Jakin min ez baina ezer berezirik topatzeko aurre uste gabe gerturatu nintzen haietako batetara: "Patriarkatua eta gizarte kapitalista". Lur eta zur atera nintzen hitzaldi hartatik, ustez hippy arraro eta parrandazale batzuk zirenak, benetan hausnarketa saketan oinarrituak zeudela ohartu nintzen.

Orduan entzun nuen aurreneko patriarkatuari buruz. Gizartea kudeatzeko sistema, lehiakortasunean oinarritua, norberak bere burua salbatzean eta ondokoari irabaztean, ondokoa gaizki ikusteko arazorik gabea norbera hobetzeko balio bazuen. Aipatzen zuten ere sistema patriarkalak bere buruan ziurtasunik ez zuten gizakiak behar zituela, maitatua izateko diru asko, kotxe ederra, estatus soziala etab behar zituela, eten gabe hutsa sentituko zena. Bestela nor egongo zen esklabo bat bezala ordu pila bat lanera joateko prest? Gizaki ez ziurrik sortzeko, bideak anitzak ziren, haurrak amarengandik azkar kendu, sistema konpetitiboa txikitatik naturalizatu, etab.

Ulermenaren lagungarri izan zen gero "El arte de amar", Erich From-en liburua irakurtzea, non definitzen ziren maitasun patriarkala eta matriarkala, gure gizartean amaren eta aitaren figurei lotuak. Maitasun patriarkala da maitatzea dena de-



lakoaren gainera, maitasun inkondizionala, ama lurak beregan gaude no diguna. Maitasun patriarkala da nik maite zaitut nik esaten dizudana egiten baduzu, kondiziozko maitasuna. Kristau erlijioa maitasun mota honetan oinarritzen da, kapitalismoa ere. Nire galdera da ea benetan maitasuna den hau, edo interesa, edo...

Asko atera da azken aldian patriarkatu hitza feminismoa mintzagai dugun garai honetan. Ez dakit ze punturaino ohartzen garen sistema patriarkala zer den eta zenbatetaraino duen eragina gure bizitzetan. Konpetentzia, gehiago nahi izatea, zaintzaren desbalarizazioa, biolentzia harremanen normalizazioa (adibidez aurreko egunean kiroldegian mutil gazte kuadrilla bat elkarriz sekulako mina egiten ari zen neska kontuak aipatuz, gezurretan, emandako konfiantzak puskatuz... eta egoera normala zela ematen zuten...). Egoera horrek gizonoi ere, baina bereziki emakumei egiten

die kalte, haien rol normal eta ia eskusibotzat jotzen baita zaintza, umeen arreta, etab, eta desoreka nabaria da gauza pila batetan, lan aukerak, sexualitatea...

Aipatzen da berriz garai bat egon zela non agintzen zuten sistema patriarkala zen, tribua elkar zaintzen zen, denek zuten garrantzia, helduek, gazteek, umeek, zaharrek... Denon zaintza bermatzen zen, kanpotarrak ongi etorriak ziren, zegoena banatzen zen, elkar lanean aritzen zen erabat... Entzun dudanetik zerbait badu, amesten eta asmatzen dudanetik gehiago.

Borroka feministarekin gogotsu konektatu dut betidanik, badudalako zerbait bide oso egokia dela esaten didana. Ez da niretzako emakume eta gizonen arteko borroka bat, patriarkatu eta matriarkatuaren artekoa baizik. Borroka hitza agian patriarkala da, baina ez da ukatzen. Noski, izaki bezala konpetentzia agertu daiteke, agresibitatea ere... Salbuespen beharrezko bezala, baina oinarrian sinisten dudana sistema patriarkala dela uste dut, nuen elkar zaintzak eta errespetuak lehen lekua duen, nuen naizena izateko ez dudana ezer berezirik behar. Noski, hau dena ikasten eta praktikatzeko hasteko garaia da, garai batean izan baldin bazen, orain ahaztu xamar dudalako eta ez da urte batetan edo bitan ikasteko kontua baizik eta luzerako lana, beraz, pixkanaka, ados? Aurrera!



Zabal

# “Hilekoak dituen konnotazio negatiboak positibo bihurtu behar ditugu”

Gogoratzen zure kuleroak lehenengoz odoleztaturik ikusi zenitueneko egunaz? Edo eskolako aulkia zikinduko zenuenaren beldur, eserita deseroso sentitzen zinen garaiaz?

Estatistikek diote, bataz beste-koaren arabera, emakumeei hamabi urterekin jaitsi ohi zaiela hilekoa eta 48 urterekin joaten zaie. Lau eguneko jariora izaten da bataz beste. Beraz, emakumeak bere bizitza osoan 1.872

egunehar izaten du hilekoa bataz beste. Biztanleriaren erdiaren egunerokoa hain presente dagoen gauza bat izanik, zergatik da erdi ezkutuan dagoen gaia? Halako erreparoa ematen al digu odolak berak beste egoeretan?

Hilekoaren kasuan behintzat, badirudi gizartearen zati batek nahigo duela gaiak hitz egin behar denean odola estali. Ikusezin bihurtu, ala hilekoarekin lotutako higiene

produktuen iragarki askotan bezala, gorri kolorea garbitasuna transmititzen duen urdin kolore batengatik ordezkatu.

Hautsak harrotu zituen ez orain urte asko, Kiran Gandhi atleta, Londresko maratoian hilekoaren isuria elastikoetan zuela atera zenean. *Instagram*ek ere hasiera batean kendu egin zuen gerora ezagun egin zen Rupi Kaur artistak ohean etzanda aterako irudi hura.

Zenbait Gobernu Kanpoko Erakunde arabera munduan 500 milioi emakume baino gehiagok ez du baliabide askirik odol isuria kudeatzeko. Beste zenbaitek emakumeak hilekoarekin dauden egun horietan, euren herritik kanporatzen eta baztertzeko dituztela salatzen dute. Ezin esan dezakegu gurean, egoera horren muturrekoa denik. Gauzak asko aldatu dira azken mende honetan, baina oraindik ere badirudi hilekoa, menstruaioa, regla, ez dela normaltasunez hartzen.

Maitane Urbizu (34 urte) eta Aitziber Eleta (35) lekunberriarrak, kuadrilla berekoak dira. Gaztexasa da Aldazko Garazi Moreno (17 urte). Zenbait ezberdintasun badira hilekoaren gaiarekin izan zuten lehen harremanari dagokionean, baina hirurak bat datoz: oraindik ere ezjakintasun handia dago.





Kopa izan da jarioari aurre egiteko merkaturatu den azken produktueta bat.

### **Zuentzat hilekoa gai tabua da ala ez?**

**Aitziber:** Gaur egun, niretzat ez.

**Maitane:** Niretzako pertsonalki ere ez da tabua, baina gizartean oraindik uste dut badela.

### **Baina normaltasunez hitz egiten duzuen gai bat da?**

**A:** Bai. Nik uste dut lortu dugula, behintzat gure inguruan, naturaltasun batez hitz egitea. Agian kontzienteki erabakita. Emakumeon gauza bat da eta lagun artean konpartitu ditugu gaztetxo ginenean izan genituen kezka.

### **Eta zergatik uste duzue orokorrean, gizartean, oraindik ere gai tabua dela?**

**M:** Emakumearena delako. Ni kontratzen naiz kuadrillan denak neskak izanik, naturaltasunez hitz egiten dugula, maila berean gaudelako. Baina zure zirkulu horretatik ateratzen zarenean... Adibidez, berrogei eta piko urteko gizonezko lankide bati hilekoarengatik minez zaudela aipatzen diozunean, deseroso senti daiteke. Horrelako egoerak sumatu izan ditut.

**A:** Bai ezezagutza edo ezjakintasunagatik, agian.

### **Telesail, film eta liburuetan beste gai askorekin alderatuta oso presentzia txikia izan ohi duen gaia da...**

**A:** Bai. Niri gertatu izan zait hilekoari buruz hitz egiten hasi eta mutil bat ondoan entzuten egon eta... -Baina zergatik hitz egiten duzue beti hilekoari buruz?- galdetzea. 13 urtetik 50

urtetara hilabetero-hilabetero daukagun gauza bat da eta egarria izan dezakezun bezala edo katarroarekin mukiz beteta egon zaitezkeen bezala, hilekoa gure egunerokoan dagoen beste gauza bat gehiago da.

**M:** Baina beti da zerbait "negatiboa bezala", "emakumearena", "intimoa", "ezkutatu beharrekoa"... Eta horregatik ez da gaiaz gehiegi hitz egiten.

### **Eskolan zeundeteneko oroitzapenik baduzue horrekin loturik? Hilekoari buruzko informaziorik jaso zenuten?**

**A:** Nik dudan esperientzia da, helduagoa zen beste haur batek kontaktu zidalako izan nuela horren berri, eta pixka bat sorpresaz hartu nuela. Baina eskolatik ez genuen jaso. Gero, hilekoa jaisteko adina hurbiltzearekin batera, zerbait bazenekien entzuna zenuelako edo baten batek bazuelako, baina oso nukleo itxiko zerbait zen.

### **Eta etxean?**

**A:** Behin jaisten zitzaigunean bai, laguntzen gintuzten. Baina uste dut, egokia dela aurretik prestaketa bat edukitzea ere.

### **Ume-umetatik amaren hilekoaren berri normaltasunez izan beharko genuke...**

**M:** Bai, eta nik etxean ikusten nuen, baina lotsa ematen dizu jaisten zaitzunean. Agian naturaltasunez hitz egiten da amaren hileko horretaz, baina nireaz ez. Niri ere jaitsiko ote zait hori?

**A:** Bai, amarengan ikusi arren, ez zara oso kontziente.

**M:** Nik hilekoaren berri kontzientea-go lagunekin izan nuen. Klase-kide bati jaitsi zitzaionean eta arduratuta ikusten zenuenean: -Ai ama, orain irakasleari esan beharko diot konpresa bat emateko?-. Oraindik jakin gabe ere oso ongi konpresa bat nolakoa zen eta nola jarri.

**A:** Eskolan ez ziguten ezer azaldu eta hori neskei nahiz mutilei azaldu beharreko zerbait da. Mutilek ere informazio hori jaso behar dute.

**M:** Hamar urterekin edo lehenago.

### **Normaltasun osoz hitz egitea lortu duzue, baina hamahiru urterekin lagun artean behin jaitsi ondoren hitz egiten al zenuten?**

**A:** Bai, baina oso gertukoarekin. Garai hartan, kuadrillan hilekoaz hitz egiteko "hilekoa" hitza erabili beharrean izengoiti bat jartzen genion.

### **Irati, zuretzat ezberdina izan zen hasiera?**

**Irati:** Nik gogoan dut eskolan, seigarren mailan ginela, ingurunekeo liburu batekin eman genuela gaia. Emakumeon hilabeteroko zikloa azaldu ziguten eta gero lagunekin ere hitz egiten genuen. Baina nabaritzen da gaia ateratzerakoan, batzuei ez zaiela asko gustatzen eta beste batzuei aldiz berdin zaiela. Baina normalizatua go ikusten dut orain. Hala ere, oraindik, neskak komunera joateko tanpoia edo konpresa ezkutuan eramaten dutela ikusten dut. Zerbait txarra izanen



Emakumeak bere bizitza osoan 1.872 egunez izaten du hilekoa batz bestea.



balitz bezala edo ez dutelako jakiterik nahi hilekoarekin daudenik.

#### **Eta etxean?**

**I:** Etxean nik, pertsonalki, lasai asko aipatu nuen jaitsi zitzaidanean, bai aitarekin bai amarekin eta baita amonarekin ere, oso normal.

#### **Mutilekin ere hitz egiten den gai bat da?**

**I:** Ez, ezer ez. Eta eurek aurrean dardela horri buruz hitz egiten baduzu, nik askotan nabaritzen dut pixkanaka nola alde egiten duten. [Kar, kar]

#### **Eta hori zergatik dela uste duzue?**

**M:** Konnotazio negatibo hori delako, beldurra, ezjakintasuna, nazka...

**I:** Bai, nik uste nazka ematen diela.

#### **Zuek ere komunera joateko ezkuntuan ibili ohi zarete?**

**A:** Adibidez, kopa erabiltzen baduzu, aurretik pentsatu egiten duzu zein komunetara joan, ea barruan iturritik baden edo kanpoan duen... Kanpora atera behar baduzu garbitzera, jendea egon daitekeelako. Batzuetan zu deseroso senti zaitzakeelako eta baita han dagoena ere.

**M:** Eta hori neskontzako komuna bakarrik izan arren! Nahiko intimoa da eta lagunekin lasai hitz egin arren, egia da gero horrela ibiltzen garela.

**A:** Bestalde, hilekoa ere ezberdina da pertsonaren arabera. Batzuek ez dute ia oinazetik nabaritzen eta beste batzuek oso gaizki pasatzen dute. Eta lanean edo ikastetxean bazaude, mareatuta edo pilulak ez dizula efek-

turik egiten... horrelako egoerak uste dut asko izaten direla. Eta batzuetan ez dakizu lankideari edo nagusiari nola azaldu: Ez nago ongi...? Edo hilekoarekin nago...?

**Konnotazio negatiboa duela diozue, baina odolak berak ere badu konnotazio hori berez. Zeintzuk dira hilekoaren odol horren aurrean izan dituzuen sentsazioak? Nazka, inpresioa, beldurra...**

**M:** Nazka ez.

**I:** Ez, uste dut inpresioa dela gehiago. Azkenean zure gorputzetik atera da, zerbait berria da...

**A:** Nik lotsa sentitu izana gogoratzen dut.

#### **Telebistako iragarkiak ez dira oso errealistak izaten...**

**M:** Ez, ematen du yoga lasai egin dezakezula, baita galtza zuriekin ere!

#### **Eta zuen garaitik hona asko aldatu dira isuriari aurre egiteko produktuen eskaintza? Gaur egun, konpresak daude, tanpoiak, kopak...**

**A:** Ez da asko aldatu.

**M:** Koparena izan da berritasunik handiena.

#### **Produktu horiek oinarrizko behar bat izanagatik BEZa jaitsi edo kentzearen aldeko aldarrikapena egiten hasia da gizartearen zati bat. Zer iritzi duzue?**

**A:** Uste dut oinarrizko marka bat sortu beharko litzatekeela, denontzako eskuragarria.

**M:** Bai. Azken batean, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desoreka horretan, emakumeak gastu estra hori dauka. Prezio hori, doakoa edo sinbolikoa izan beharko litzatekeela uste dut. Egia da koparekin asko aurrezten dela eta gainera, gorputzak kanporatzen duen hori ikusten duzula, usaina, kolorea... Hilekoarekiko erlazio naturalagoa ahalbidetzen du.

**A:** Eta erlazio naturalago horrek zeure burua ezagutzen laguntzen du, askotan gorputzaren orekaren adierazgarri ere badelako. Adibidez hilekoa joaten baldin bazaizu, haurdun zaude-

lako izan daiteke, baina baita osasun arazo bat daukazulako ere, edo nerbioak direlako edo beste mila faktore.

**Eta tabua izateari uzteko zein pauso eman daitezkeela uste duzue?**

**I:** Eskolan askoz lehenago azaldu beharko lukete, eta ez bakarrik zikloa bera, baita eskuragarri izan ditzakegun gauzak ere, konpresak, tanpoiak...

**A:** Bai, agian adin ezberdinetako pertsonekin esperientziak partekatzea lagungarria izan daiteke. Hilekoa bizitzeko modu ezberdinak daude eta sintomatologia bera oso anitza da. Uste dut horretan lan handia egiten ari direla mugimendu feministak eta hainbat sortzailek.

**M:** Uste dut estigmatizazio hori kendu edo aldatu egin behar dugula. Hilekoa oso naturala den zerbait da, lurrarekin kontaktua duena, positiboa, ziklikoa, sormenarekin harremana daukana... eta dituen adjektibo negatiboak positibo bihurtu behar ditugu. Besteak beste, mina beste modu batera bizitzen ikasi behar dugu.

**Gaur egun, beste hainbat gauzekin bezala, hilekoarekin ere ematen den automedikazioa ikaragarria da...**

**M:** Pentsa, minarengatik edo irregulartasunarengatik zenbat botika eta antisorgailu hartu ohi diren. Hor atzean izugarritzko negoziarioa dago.

**A:** Automedikazio handia dago. Mina arintzeko beste bide batzuk bilatzea, hilekoa hobe ulertzea

eta horretarako ikerketa gehiago egitea klabea izan daiteke.

**M:** Gainera, hilekoarekin zauden egunetan, sufritzen egon zaitezke edo oso ahul, baina ezin duzu gelditu. Munduak bere erritmoan jarraitzen du eta zuk ekoizten jarraitu behar duzu. Ezin duzu esan: -Gaur hilekoarekin nago eta ez noa lanera-. Gorputzak deskantsatzeko eskatzen digu eta ez diogu ematen. Pilula edo dena delakoa hartu eta aurrera. Eta azkenean, ez dugu errespetatzen gure natura zikliko hori.

**“Adin ezberdinetako pertsonekin esperientziak partekatzea lagungarria izan daiteke”**



Garazi Moreno, Aitziber Elea eta Maitane Urbizu.

**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak, berriak, eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua Kalea Nº7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88  
maiteharategia@hotmail.com

## “Ezin ziñen urekin garbittu hilekoakin ziñen bittartean”

*Carmen (75 urte) eta Nieves Lantz (73) ahizpak Etxarrin jaio ziren, Dendaenean, baina handik urte gutxira, Matxeneko bordara joan ziren bizitzera. Zortzi anaia-arrebetatik gazteenetakoak dira. Elena Elizaldek (82 urte) berriz, Mugiroko Bentan pasa zuen bere haurtzaroa eta bost anaia-arrebetan bigarrena zen. Umorearekin hartzen badute ere, oso bestelakoa izan zen aurreko hiru elkarrizketatuen aldean hauek bizi izan zutena.*

### Amarekin hilekoari buruz hitz egi- ten al zenuten?

**Elena:** Ni ez nintzen amakin bizi, biño akordatzen naiz izoak nola hitzein zeen eta nola esan zeen regla etorri biño lehen nola zen gauze eta nola jarri behar nittun pañoak. Nik ez nekin oso ongi nola zen gauze, beño zerbatte bazela sumatzen nun. Ne ahizpe, ni biño zaharragoa zen, biño etzien behin e deus esan, izoak esan arte.

**Nieves:** Ne ahizpek e ez!

### Eta lehenengoz jaitsi ondoren?

**E:** Haunditu ginenen bai, biño gaztekin ginela ez e! Akordatzen naiz eskolan goiz guzin eseita eon eta txutitu eta soinekoa odolez zikindute. Etxea menditik barrena joaten nintzen Mugirotik, ta ze apuroa inork ez ikusteko...

**Carmen:** Klaro, gaina soinekoakin ibiltzen ginen!

### Carmen, zuen ama oso gazte hil zen, baina zuek baino zaharragoak ziren hiru ahizpa zenituzten...

**C:** Ni haurtzain atea nintzen hamai-ka urteekin Azpiozko Errementane-ko Maritxungana, Gipuzkoara. Hue maistra zen eta ez dakit zerbatte su-

matu izain zun eo nik esan izan nion tripeko miñe neukela... Beño bakit hasi zela galdezka ia banekin regla zer zen, iual edadea izango nula... Harrek esplikatatu ziten nola izaten zen, ta emakumezkoai nola jeisten zitzeen hilero. Beño hoi ez zela txarra eta ordun itten zela emakumea. Sekuleko esplikazioak eman zazkien ordun! Beño etxeakoak, inork ez!

### Baina gero zuk Nievesi ere ez ze- nion ezer azaldu!

**N:** [Kar, kar]

**C:** Ez. Ordureko etxetik kanpo nenbilen lanen. Ta gaina ezta burutik pastu re!

**E:** Gure garaiean launekin re ez zen hitzeitten hortaz, nahiz eta tripeko miñekin eon!

**N:** Gure garaiean hoi tabue zen!

**E:** Tabu, hoixe zela!

### Orduan ez zen konpresarik ere...

**C:** Ez, halako toalla ttiki txuri betzuk zien! Beño hortako re etziñunen, toalla zahar puske bat iual jartzen zinñun.. Ordun dena aprobetxatzen zen e!

### Eta non garbitzen zenituzten?

**E:** Guk etxin labadero bat giñun eta etxin.

**N:** Guk Etxarriko borda hartan ez gi-

ñun ez ure ta ez argi, eta Errekazahar-  
renen atzeko aldea o beheiko aska  
batea joaten ginen.

### Odola garbitzea ere ez da erraza izaten...

**N:** Ure hotzakin! Beroakin ez ditteke garbittu, ez ordun ta ez oain.

**C:** Gehiena ur hotzakin errekan, ta gero etxen indako jabona eman ta utzi. Ta iurtzi ta eman... ta berriz... Ta bakarren bat pasatzen balen bazen izkutatu harrin azpin o...

**E:** Pekatue balitz bezela! [Kar, kar]

### Eskolan ere ez zizueten ezer azal- duko...

**E:** Maiestrakin? Ez, ez, baita zea de! Ezta pentsatu de! Gauze hoitatik ez zen bate hitzeitten!

**C:** Eta launekin e ez. Gaña, hoi bestek jakittea eo hitzeittea nik uste lotsa zela.

### Garai hartan garbitasuna man- tentzea ere zailagoa izanen zen...

**N:** Jesuuuus!

**C:** Guk toalla ttiki hoik Iruñea joateko jartzen giñun bakarrik, gañekoan, toalla zahar baten puskekin.

**N:** Bai hala zen eta hala kontatu behar da!





### **Komunik ere ez zen izaten...**

**N:** Ikulue, ongarrie!

**E:** Guk, Bentan bagiñun.

### **Eta komuneko papera?**

**C:** Periodiko puske!

**E:** Bentan bazen papera, beño gor-gorra...

**(Hirurak batera):** El Elefante izena zun! [Kar, kar]

### **Orain pilula asko daude oinazea-ri aurre egiteko. Zuek bazenuten erremedioren bat?**

**N:** Ordun ez zeon deuse. Aguantatzea!

**E:** Ni oroitzen naiz izoakin kanpoan nintzela izuarizko tripeko miñekin negoala. Ginebra pixkoat edatea ona zela eta taberna joan ginen, ginebra eskatu giñun ta kamareroak: -¿Qué, la muela?-. Ta guk: -¡Sí!-. [Kar, kar]

### **Garai baten, hilekoarekin zinen egunetan dutxatzea txarra zela ere esaten zuten...**

**E:** Garbittu? Ezta burue re!

**C:** Hankak e ez. Ezin zittekeen hilekoakin zinen bittartean. Nik ez dakit ze arrisku zegoan.

**N:** Zerbatte izangoa!

**E:** Bai. Oain ez, ohittuta gaudelako, beño esaten zuen regla mozteko arriskue zula.

### **Eta hori errespetatzen zenuten?**

**C:** Bai, bai, beharko!

**E:** Eta odolrik eta txistorrak e ezin ziñuzen ein eun hoitan.

**C:** Txerrie hiltzen zenean izaten zen hoi. Emakumea hilekoakin balen bazegoan, txistorrak eta odolrik eitteko etzezakeen ukuttu emakume harek. Ta gaina kasualidadea hue izaten zen zekina! Ta ukuttuz gero, galdu eitten zeen txistorrak!

**E:** Bai usteldu eitten omen zeen, ez zeen ongi konserbatzen.

### **Baina hori egiaztaturik duzue?**

**C:** Bai, bai, beti ez dot esanen, beño konprobatue dao.

**E:** Nik ez dot osota sinisten hoi!

**C:** Ba nik konprobatue dauket, ikusita!

**N:** Gure etxea Mikaela etortzen zen



Nieves Lantz, Carmen Lantz eta Elena Elizalde euren esperientziak konpartitu dituzte.

txerri hiltzea, ta harek erakusten ziun odolrik eitten. Ta sartu orduko esaten zun: -¿Estáis en condiciones?-. Eta baten bat hilekoakin balen bazeon, hue kanpoa.

### **Eta hilekoa naturalzat edo zerbait negatibo gisa hartzen zenuten?**

**E:** Naturala, beño negatiboa, miñengatik.

**C:** Bai, eun hoitan negatiboa, beño nei esplikatu zeen positiboa zela. Emakumezko batek regla ez badu izaten eo oso beandu etortzen bazaio, emakume horrek beti ba omen du zerbatte, gaitztasune. Horreatik nik positibo bezela hartzen nun.

### **Eta menopausiari buruz hitz egiten zenuten?**

**N:** Erretiroaz? Bai geen tarten asko. Sofokoak! [Kar, kar]

**C:** Horrei nik uste ez zaiola horrenbeste inportantzi eman izandu.

**E:** Umetan etxen hortaz e etziutean hitzeitten.

### **Baina horrek ere badu konnotazio negatiboa, ezta?**

**E:** Noski, zaharra eitten ai zeanan seinale!

**C:** Alde batea bai ta bestea ez. Ze hilerro-hilerro horrenbeste urtez eta esateuzo: Noiz akaatu behar ote do!

**N:** Nik pentsatset hoi etorri bittarten hobeki eongo zaala. Behin hoi moztutzen denen...





KORRIKA

## Eskualdean ere Klik egin dute 21. Korrikarekin

Joan den apirilaren 8an pasa zen 21. Korrika Larraundik. Atzerapenarekin sartu zen lasterketa ibarrean eta Utziko bidean hartu zuten lekukoa Larraundarrek. Hala ere aurretik, Ezkurratik Leitzarako tartean beteluarrek eta araitzarrek ere euren kilometroak egin zituzten. Aurten ez baita bertatik pasa Euskararen aldeko lasterketa. Lekunberrin nabarmen handitu zen furgonetaren atzetik korrika ibili ziren lasterkari kopurua eta batzuek Mugirotik barna Urritzarainoko bidea ere egin zuten. Tartean, eskuz esku ibili zen lekukoa, heldu nahiz haur, udaletako ordezkari, talde eragileetako kide, gurasoak, herritar xumeak... Horra hor aurtengo edizioak utzitako zenbait irudi!





## LARRAUN

## Maiatzan kultura



Urtero bezala, maiatza kultur ekitaldiz beteta datorkigu. Mitxasenea Kultur Etxeak antolaturiko hainbat hitzordu izanen dira hilabete osoan zehar. Maiatzaren 5ean zabalduko da egitaraua Bide Berdeen Egunarekin, nahiz eta ekitaldi guztiak Leitzako tren geltokian eginen diren. Maiatzaren 10ean berriz Aralar Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Kantinean eta maiatzaren 18an, Tirikitrauki taldeak dantza emanaldia eskainiko du Baraibarren. Eta ekainaren 2an, Ondare Kultur Taldeak antolatutako "Iruintrikuharribide" ibilaldia-ekin emanen zaio amaiera (Egitarau osoa kontrazalean ikusgai!).

## LEKUNBERRI

## Angel Urrutia omenduko dute bere heriotzaren XXV. urteurrenean

Mende laurden bete da Angel Urrutia poeta lekunberriarra hil zela eta datorren maiatzaren 11n, larunbata, arratsaldeko 19:00etan omenaldi berezia eginen dio herriak Ayestaran Hotelean. *Río Arga* aldizkariko zuzendari eta sortzaileetako bat izan zen besteak beste eta bere omenez Lekunberriko Udalak poesia sari-keta ezaguna antolatu ohi du. Datorren maiatzaren 30ean amaituko da hain zuzen ere Angel Urrutia Iturberen XX. Poesia Sarietan lanak aurkezteko epea.

## ARAITZ ETA BETELU

## Autodefentsa Feminista ikastaroa izanen da maiatzaren 11n Araizko udaletxean

Tximuutxe Bilgune Feministak Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuarekin batera Autodefentsa Feminista ikastaroa antolatu du. Datorren maiatzaren 11n izanen da Araizko Udaletxean. Beharrezkoa da aurrez izen ematea 692 713 864 telefono zenbakian 5 eurotan.

Animatu eta parte hartu!



**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
ARBEONDO HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**aitz  
berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com



# “Mota ezberdinetako hanburgese- tan berezitu gara”

*Ekainean urtebete eginen dute Jack Gargalik eta Borja Diazek Lekunberriko Kantinan. Aspaldidanik bertan bizi den bulgariarra da lehena eta donostiarrak bigarrena. Mota guztietako hanburgese-  
tan berezitu dira eta herritarren harrerari esker hasiera positiboa izan dute.*

## **Nolatan animatu zineten Kantina hartzera?**

**Jack:** Biok ostalaritzan lanean ibilitakoak gara. Ni aurretik hemen bertan lanean aritu nintzen eta behin baino gehiagotan proposatu ziguten Kantina hartzea eta azkenean animatu egin ginen.

**Borja:** Egia esan, nagusiekin lan egiteaz pixka bat nekatuta geunden biok eta gure kontura lan egiteko gogo genuen.

## **Eta zer moduz joan de lehenengo urtebetea?**

**Jack:** Oso ongi. Nik urte asko daromatzat Lekunberri bizitzen eta jakin badakit herrian taberna eta jatetxe asko daudela. Eta horrek ematen zidan ikara handiena. Baina aurrera egin dugu eta jendeak ere lagundu digu horretan.

**Borja:** Askok uste dutena baino gogorragoa da, atsedean hartzeko dugun egunean ere zereginak izaten ditugulako, baina oso balorazio positiboa egiten dugu eta herriari oso eskerturik gaude.

## **Zer eskaintzen duzue?**

**Jack:** Ogitar-tekoak, plater konbinatuak, entsaladak... Baina gehienbat hanburgese-  
tan berezitu gara. Ohiko hanburgesak edozein tabernatan aurki ditzakegu, baina mota askotako ogi eta hanburgesak eskaintzen ditugu guk. Sakanako zaldiko haragiz egindakoak, Nafarroako txahal haragizkoak, oilasko hanburgesak, izokin hanburgesak...

**Borja:** Orain hanburgesa beganoa eskaintzen hasteko probak egiten ere bagabiltza. Plater konbinatuetan eta ogitar-teko nahiz sandwichetan aukera beganoak baditugu eta eskaria dagoela ikusita, hanburgesa beganoak ere eskainiko ditugu aurki. Sukalde txiki xamarra daukagu eta pixka bat mugatuta ere bagaude eskaintza zabalagoa emateko, baina hala ere,

*“Ogi egin berria ateratzen dugu eta detaileak zaintzen saiatzen gara.”*

taberna eta kanpoaldeko terrazak betetzen direnean, askotan ni neu ere harrituta gelditzen naiz ematen ditugun otordu guztiekin.

## **Herrigunetik aldendurik egoteak ere zerbait ezberdina eskaintzera behartuko zintuzten...**

**Jack:** Bai. Hasieran jendea-  
ri kosta egiten zitzaion hona etortzea, eta orain ere badira hemen gaudela ahaztu ere egiten zaienak. Horregatik astez jendea-  
ri gehixeago kostatzen zaio, baina asteburuan jende asko hurbiltzen da.

**Borja:** Astelehenetan itxi egiten dugu, baina udan, ekainaren erdialdetik aurrera, egunero irekitzen hasiko gara, goizeko bederatzietatik aurrera eta gosariak ere emanen ditugu. Ogi egin berria ateratzen dugu eta detaileak zaintzen saiatzen gara.

**Jack:** Produktu freskoekin lan egiten dugu, gainera hemen biltegi handirik ere ez dugunez, hala lan egitera beharturik gaude!

## **Zein bezero mota da zuena?**

**Jack:** Gehienak hemengoak eta ingurukoak dira, Lekunberri, Larraun, Leitza, Irurtzun... Astez, eguerdian, kanpotarrak herritar-  
rak baino gehiago izaten dira, eguneko menu-  
rik eskaintzen ez dugunez bertakoak ez dira horrenbeste etortzen, baina afaritan gehiengo bertakoa da. Hala ere, neguan hemengo kuadrilla, familia eta mendizaleentzako bazkari asko ere eskaini ditugu, aurrez antolatutakoak.

**Borja:** Orain, udarako erreserba asko iristen ari zaizkigu. Urrirako ere baditugu dagoeneko erreserbak. Joan den hilean bizikletekin antolatutako bisita gidatu bat egin genuen eta

ondoren bertako produktuekin osatutako dastaketa bat eskaini genuen.

### Plazaola Bide Berdean ibiltzeko bizikleten alokairu zerbitzua ere eskaintzen duzue...

**Borja:** Bai eta eskari handia dago, baina nahiko mugaturik dago zerbitzu hori. 17 bizikleta daude eta askotan eskaria askoz handiagoa izaten da. Norvegia eta Alemaniatik ere etortzen dira bizikletaz Bide Berdea egitera eta gainera hilabete askotako aurrerapenaren egiten dituzte erreserbak. Baina kopurua txiki gelditzen da askotan eta kalitatea ere mugatua da, dagoeneko urte batzuk ere badituztelako.

**Jack:** Pena da guk ere ezin dugulako inbertsio hori egin, Kantina lau urte tarako bakarrik esleitu zitzaigulako eta horrek etorkizunera begira mugatu egiten gaituelako. Eta pena da, gustura gabiltzalako lanean, baina ezin jakin hemendik hiru urtera berriro ere esleituko diguten.

**Borja:** Garrantzitsua da Kantina proiektu egonkorra izatea, eta bertan lan egiten dutenak behin-behinekoak ez izatea. Guk ahal dugun neurrian onena ematen saiatzen ari gara eta zenbait hobekuntza ere egin ditugu.

**Jack:** Bai. Adibidez, jende asko lan egitera etortzen da, edo bertan bilerak egiten dituzte. Horregatik mahaietan entxufeak eskura jarri genituen ordenagailu eramangarriekin lan egin nahi dutenak lasai etor daitezten.



### Kantinan urtean zehar hainbat kultur ekitaldi antolatzen dira...

**Jack:** Bai, eta gu halako proposamenen aurrean irekita gaude, horretarako eszena-toki aproposa dugulako, baina antolatzaileak dena antolatzeaz arduratu daitezela eskatzen dugu. Gure lanarekin ezinezkoa zaigulako horretaz ere arduratzea. Datorren maiatzaren 26an, Zelanda Berritik etorritako Labretta Suede taldearen kontzertua izanen dugu Kantinan. Eta ekainaren ere lehenengo urteurrena ospatzeko zerbait berezia antolatzen gabiltza.

**Harremanetarako:**  
[kantinadelplazaola@gmail.com](mailto:kantinadelplazaola@gmail.com)  
 edo 848 473 115.





## VII. EHME berrikuntzekin dator

Euskal Herria Mendi Erronkak bere VII. edizioa beteko du aurten. Maiatzaren 18an izanen da lasterketa eta motorrak berotzen joateko, maiatzaren 12an, igandea, Salomon Sense Pro 3 zapatilak probatzeko aukera izanen da Betelun. Lasterketaren aurreko egunean berriz, 17:30etatik aurrera dortsalen banaketa egingen da Leitzako plazan eta arratsaldeko 19:15etan, Italiako Aosta bailaran egiten den lasterketari buruzko "Tor de Geants" dokumentala eskainiko da Leitzako udaletxean.

Ibilbideari dagokionean, ez da aldaketarik izanen. Aurten, ordea, 67 kilometro horiek bi pertsonen artean egiteko aukera ere egonen da lehen aldiz. Emakumezkoen parte-hartzea sustatzea da helburua. Izan ere, gizonezkoen aldean askoz ere txikiagoa izan da emakumezkoek orain arte izan duten presentzia. Eskualdean oraingoz EHMEan parte hartu duen neska bakarra Maddi Sotil beteluarra izan da. 12 ordu eta 3 minututan lortu zuen lasterketa borobiltzea.



VII. edizio honetan, lasterketa erreleboka egiteko aukera izanen dute, bikote mistoek, nahiz bi emakumezko osatutako bikoteek. Bietako batek Irteeratik Putzuzarrera (San Migel) egin beharko du bidea eta bigarrenak Putzuzarretik helmugarainokoa.

Lasterketa bakarka egiten duten horientzat, maiatzaren 18ko proba Euskal Herriko Ultra Trail txapelketa ere izanen da eta horregatik antolatzaileek lasterkari eliteen parte-hartze handiagoa espero dute.

Urtero lasterketaren filosofia-rekin bat datorren pertsona edo erakunde bati egin ohi zaio omenaldia eta aurten Iker Karrera lasterkari amezketarrak jasoko du. Lasterketak uzteko erabakiaren berri eman du eta EHMEri emandako izena eta ospea dela eta lasterketa hasi baino minutu batzuk lehenago omenaldi berezia egingen diote.

Lasterketari amezketarrak jasoko du. Lasterketak uzteko erabakiaren berri eman du eta EHMEri emandako izena eta ospea dela eta lasterketa hasi baino minutu batzuk lehenago omenaldi berezia egingen diote.

## Araxes Herri Kirol taldeko Kade-teak eta Kimuak Nafarroako Kirol Jokoen finalean izan dira

Dagoeneko urteroko zita bihurtu da Nafarroako Kirol Jokoen Txapelketa Araxes Herri Kirol taldeko kideentzat. Aurten ere maila ezberdinetan parte hartu dute txapelketan eta Kadeteak eta Kimuak finalera iristea lortu zuten. Joan den hilean jokatu zen finalean, hirugarren eta laugarren postuan sailkatu ziren hurrenez hurren.

Konbinaden modalitatean aritu ziren biak. Unai Ijurko, entrenatzailea: "Kimuen kasuan oso zorte txarra izan dugu, izan ere, justu finalean kirolari pare baten bajak izan baigenituen. Bestela seguru sariren bat lortuko zutela. Hala ere, denek oso lan ona egin dute".

Maiatzean 4x4 sokatira txapelketari aurre egin beharko diote. Kadeteen taldeaz gainera, helduen mailan gizonezkoen 300kg-ko mailan ere arituko dira lehenengoz. Zorte on!



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)





**Aimar Aldaregia Balda**

Maiatzaren 6an, 2 urte.

Zorionak pottolo! Oso ongi pasa zure egunean eta segi beti bezain bihurria izaten! Iraide, Haizea eta familia guztiaren partetik muxu pila bat!



**Gurutze Otamendi**

Maiatzaren 3an, 59 urte.

Munduko torreik altunak baño argi gehio ittezo zok gure artean!! Muxu haundi-haundiet etxeko guztin partez; urte askotako!!



**Ane Etxeberria Arginarena**

Maiatzaren 22an, 2 urte.

Zorionak potxola!! Ondo pasa zure eguna. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partez.



**Nikolás Bécarea Bachilieri**

Maiatzaren 18an, 4 urte.

Zorionak txiki!! Ongi pasa zure egunean! Muxu handi bat aita, ama eta Luanaren partez! Muaaaaa!!!



**Unai Goñi**

Maiatzaren 9an, 14 urte.

Zorionak Unai! Asko disfrutatu zure egunean. Muxu bat etxekoa partez.



**Jakes Iturrioz Cruz**

Maiatzaren 11n, 10 urte.

Zorionak!!! Aupa jakes!!!



**Narrea Elordi Ilarregi**

Maiatzaren 11n, 8 urte.

Zorionak politte!! Disfrutatu zure egunaz. Ongi-ongi pasa. Asko maite zaitugu! Familia guztiaren partez, muxu handi batekin.



**Aimar eta Aitzol Zubillaga**

Maiatzaren 4ean, 16 urte.

Maiatzaren 15ean, 12 urte.

Zorionak bikote! Ongi-ongi pasa zuen urtebetetze egunak.

Muxu bana, Ugaitz, aita eta etxeko guztien partez.

**Araika Etxarri Urbizu**

Maiatzaren 6an, 7 urte.

Zorionak politta, ongi ospatu eguna! Aurten ere marigorrinok jango ditugu. Muxu erraldoi bat etxeko denen partez!!



**Alaitz Olano**

Apirilak 25.

Zorionak eta urte askoan politta! Oso ongi pasa zure egunean, muxu bat!



**Eneko Etxeberria Etxarri**

Maiatzaren 12an, 3 urte.

Primeran ospatuko degu familia ta laguneren artean. Muxu handi bat denen partez!



**Elaia Iriarte Olano**

Apirilaren 20an, 2 urte.

Zorionak etxeko txikinari!!!

Segi horren alai eta saltsera.

Muxu erraldoi bat Enaitz, attetxo eta amatxoren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

# “Denok, ahal den neurrian bertakoa eros dezagun bultzatu behar dugu”

**Cedernak hamar udalekin sinatutako hitzarmen baten bitartez teknikari berria kontratatu du lehen sektorea, produktuen transformazioa eta komertzializazioa sustatzeko. Maider Niso Salsamendi arduratuko da eskualdean lehen sektorea bultzatzeko dinamika martxan jartzeaz.**

**Elena Irigoien, zu izan zara orain arte Garapen Agentziako teknikari bakarra. Nolatan hartu duzue beste teknikari bat kontratatzea- ren erabakia?**

**Elena:** Cederna Garalur 8 Garapen Agentzietatik lantzen dugu Nafarroa Iparraldea. Kasu honetan Mendialdea Garapen Agentzian Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Araitx, Be-

telu, Lekunberri, Larraun, Imotz, Basaburua, Ultzama eta Atezko udalerriekin egiten dugu lan. Hamabi udal dira eta ni sustatzaile pribatu nahiz publikoen beharrei erantzuteaz gainera LIDER programa aurrera eramateaz ere arduratzen naiz. Teknikari baten lanaldiarekin ezinezkoa zitzaien sektore ekonomikoetan sakontzea. Iaz udalekin hitz egin ondoren,

hitzarmen baten bitartez urte amaierara arte eta lanaldi erdian bigarren teknikari bat kontratatzea adostu zen lehen sektorean sakontzeko.

**Beraz sektorearen aldeko apustua egitea erabaki da?**

**Elena:** Azkeneko hogeitertietan lehendabiziko sektorea eredu batera bideraturik egon da, ustiategi asko bideragarriak ez izatera eraman duena eta arazo ekonomiko asko ekarri dituena. Horrekin hautsi eta beste bide bat hartzea ez da egun batetik bestera lortzen, baina gutxienez alde politikotik eskualdean bada apustu bat gauzak beste modu batera egin daitezkeela pentsatzen hasteko. Horren ardura denona da. Kontsumitzaileok ere asko dugu erabakitzeko, gure esku ere badago egiten ditugun erosketekin eredu aldatzea. Ez da soilik nekazarien edo abeltzainen arazo bat. Elikaduraz ari gara eta horrek denoi eragiten digu. Gure herriak hein handi batean ne-



 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

*Inigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
LEKUNBERRI

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**IORTIA** EL INCA ESTETIKO HORTZ ESTETIKA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI





kazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi dira eta horiek gainbehera izugarria jasan dute azken urteotan eta beharrezkoa dugu zerbait egitea.

### Horretaz arduratuko zara zu, Maider... Zein da asmoa?

**Maider:** Azkenean, hamar udalek sinatu dute hitzarmena. Betelu eta Ultzama kanpoan geldituko dira. Gainerako udalekin biltzen hasi naiz, banan banan bakoitzak duen errealitatea ezagutu eta udalerrri bakoitzean zehazki zein ekoizle dauden eta zer ekoizten den jakiteko. Baita tokian toki dauden komertzioak ezagutzeko ere. Eta ondoren, eskualde mailako lanketari ekingo diogu.

### Zein izanen da helburua?

**Maider:** Helburu nagusia bertako produktua balioan jartzea eta komertzializatzeko sare motzak sortzea da. Orain arte udal bakoitza bere aldetik egon da lanean, horregatik une desberdinetan aurkitzen dira. Izan ere, nire lanaren parte bat eskualdeko ikuspuntua sustatzea da, udal bakoitzaren esperientziak bateratzeko eta helburu komunitaria heltzeko. Beste aldetik, parte hartze-ko prozesu bat jarraitzea garrantzitsua

dela uste dut, partaide ezberdinen ahots guztiei lekua emateko eta horrela emaitza hobekak lortzeko.

**Elena:** Bertako ekoizle batzuk, behitegi handien kasuan, agian euren egitura izanen dute dagoeneko ekoiztu eta dena saltzeko eta baliteke honetan interesaturik ez egotea euren produktua komertzializatzeko. Baina proposatu nahi duguna da, ez soilik bertan ekoiztea, baizik eta transformatu eta komertzializatzeko zirkuitu motzak sortzea ere, eskolako jantoki eta jatetxeen bitartez, bertako saltokien bitartez eta herri-tarren erosketa ohiturak aldatuz. Elikagaiak kanpotik ekarri behar, denok, ahal den neurrian bertakoa eros dezagun bultzatu behar dugu.

### Ez da erraza izanen...

**Maider:** Ez eta pixkanaka-pixkanaka egin beharreko lanketa bat da, herri-tar guztiek parte hartzea gustatuko litzaigukeena. Denon ideiak beharko ditugu, abeltzain, nekazari, saltzaile eta kontsumitzaileenak... Ni dinamizatzailea naiz, baina ezinezkoa izanen da lehen sektorea bultzatzea bertakoen inplikaziorik gabe. Datoren hilabeteetan taldeak sortuko ditugu udalerriz udalerriz.

*Maider Niso teknikariarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, idatzi ezazu [mendialde-elikadura@cederna.eus](mailto:mendialde-elikadura@cederna.eus) e-postara.*

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK, KOPA, BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea, 21. nabea  
31870 Lekunberri Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
[gtlarraun@gmail.com](mailto:gtlarraun@gmail.com)



## KONTU TXIKIAK

IRAGARKI TAULA

### ARTILEA JASOTZEKO AUKERA EMANEN DIE ARTZAINEI ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEAK

Abeltzaintzak eskualdean duen garrantzia ikusita eta artzainek artilea kudeatzeko dituzuen zailtasunak ikusita, Araxes Garaiko Mankomunitateak behin-behineko irtenbide emanen dio.

Artzain bakoitzak artilea aurretik mankomunitatearekin hitzartutako gun e batean, lotu gabe eta zakuetan sartu gabe, pilatu beharko du. Artile hori konposta egiteko bideratuko da Ecofert enpresaren bitartez. Artzain bakoitzak jarritako artile kilo kopuruen arabera ordaindu beharko du, gehienez ere artile kilo bakoitzeko 0,07 euroko kostua izanen du zerbitzuak.

Bi bilketa epe jarri ditu dagoeneko Mankomunitateak. Lehena, maiatzaren 3tik maiatzaren 10era bitarte eta bigarrena, ekainaren 3tik 7ra bitarte. Interesa izanez gero, jarri harremanetan 948 51 30 87 telefono zenbakian edota [araxesmank@gmail.com](mailto:araxesmank@gmail.com) e-postaren bitartez.



## JOANDAKOAK GOGOAN

Bidali zure heriotz-agurra [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara edo dei ezazu 638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak aldizkariaren bitartez. (Dohako zerbitzua).

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
[urzubi@hotmail.com](mailto:urzubi@hotmail.com)

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: [lotamendi5@gmail.com](mailto:lotamendi5@gmail.com)

Lontxo  
Otamendi  
Artola

Atallu - Araitz

**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

panaderia okindegia

**GALBURUeco**

Egurrezko labore ogi ekologikoa

Alde zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## MAIATZA

**11 | LEKUNBERRI:**

Angel Urrutiari omenaldia, arratsaldeko 19:00etan Ayestaran Hotelean.

**12 | SENPERE:**

Herrri Urrats. Goizeko 8:45etan Beteluko Indianoetxetik irtengo da autobusa eta Lekunberriko pilotalekuan 9:00etan egingen du geldialdia.

**12 | BETELU:**

Salomon "How to trail". Salomon Sense Pro 3 zapatila probaketa. Beteluko kiroldegian, goizeko 10:00etan.

**18 | ESKUALDEA:**

Euskal Herria Mendi Erronka. Irteera goizeko 8:00etan izanen da Leitza.

**19 | LEKUNBERRI:**

Lore eta Landareen I. Azoka. Goizeko 10:00etatik aurrera Herriko Plazan.

**21 | LEKUNBERRI:**

Literatur solasaldia Miren Agur Meaberekin. Arratsaldeko 18:00etan Larraungo AEK Euskaltegian.

AGENDA

## SALGAI

Elurretara joateko buzoa salgai. Txukun-txukuna, ia erabili gabea. Taila: 4 urte. 10 eurotan salgai. Interesa baduzu deitu 639 861 257 telefonora.

Egurrezko estufa berria saltzen da oso prezio onean. Ia erabili gabea. (948 504 179 /610 144 35).

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 870 837 (Bixente).

## BESTERIK

Belarra zabaldu eta iraultzeko 2 errotoreko bolteadora baten bila nabil (679 092 896).



MERAKTU TXIKIA

**ekin**  
rotulacion  
948 85 32 79

SAN MIGUEL  
gasolindegia  
  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es





# MAIATZAN KULTURA

## MAIATZAK 5

Bide Berdeen Eguna (Ekitaldi nagusiak Leitzañ izanen dira).

Margo erakusketa eta Amaia Iparraren argazki eta olerki erakusketa Mitxausenean, goizeko 12:00etan. (Erakusketa hilabete osoan irekita egongo da).

## MAIATZAK 10

Aralar Musika Eskolako kontzertua Kantinan, arratsaldeko 18:00etan.

## MAIATZAK 11

Angel Urrutiaren omenaldia (poesia eta musika ekitaldia), arratsaldeko 19:00etan, Ayestaran Hotelean.

## MAIATZAK 12

Folk kontzertua Kantinan, arratsaldeko 18:30etan.

## MAIATZAK 18

Ahalduntze eta bizitza eskola, goizeko 10:00etan, Mitxausenean.

## MAIATZAK 18

Tirikitrauکی dantza taldeko emanaldia Baraibarren, arratsaldeko 18:00etan.

## MAIATZAK 19

Musika kontzertua: Paulino Otamendi. Eguerdiko 11:45etan Lekunberriko San Juan elizan.

## MAIATZAK 21

Literatur solasaldia Miren Agur Meaberekin AEK euskaltegian, arratsaldeko 18:00etan.

## MAIATZAK 23

Eskolako antzerkia 15:00etan, Ibarberri ikastetxean.

## MAIATZAK 24

Aztihitza Komikiaren aurkezpena 20:00etan. Xahok Nafarroan barrena egindako bidaia oinarri hartuta, solasaldia, marrazkia antzerkia eta Xuberoako kantua. Asisko Urmeneta eta bere lagunak. Ondoren afaria Uitziko Elkartean (izena emateko azken eguna, asteazkena, maiatzak 22, honako telefono honetan: 648196578).

## MAIATZAK 26

Kontakt topaketa 13:00etan Herriko Plazan.

## MAIATZAK 31

Gure agureak, gure historia: Larraun eta Lekunberriko istorioak eta kontakizunak beraiek konturik, 19:00etan, San Juan Gizarte Zentroan.

## EKAINAK 2

"Iruintrikuharribide" ibilaldia. Goizeko 10.00etan Oderizko plazan.